

IDIAZABALGO
hizkuntza-erabileraren
kale-neurketa, 2014

-emaitzen txostena-

Andoain, 2015eko otsaila



AURKIBIDEA

SARRERA	1
1.METODOLOGIA	2
1.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	2
1.2 "Idiazabal, 2014" neurketaren fitxa teknikoa	6
2. ERABILERA IDIAZABALEN, 2014. URTEAN: EMAITZA OROKORRA	8
2.1 Hamar elkarrizketetatik sei euskaraz Idiazabalen	8
2.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila	9
2.3 Euskararen erabilera Idiazabalen, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta	12
3. ERABILERAREN BILAKAERA IDIAZABALEN (2002-2014).....	14
3.1 Euskararen erabilerak ia sei puntu behera egin du Idiazabalen azken 12 urteotan	14
3.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak	15
3.3 Hizkuntza-gaitasunaren eta euskararen erabileraren bilakaera alderatua	16
4. EUSKAL HERRIKO, EAEKO ETA HERRIALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA.....	18
4.1 Euskal Herriko, EAEko eta Gipuzkoako datuekiko alderaketa.....	18
4.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, EAEko, Gipuzkoako eta Idiazabalgo datuen arteko alderaketa.....	19
4.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa.....	20
4.4 Bilakaeren alderaketa	21
5. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK	22
5.1 Sexuaren araberako emaitzak	22
5.2 Sexuaren araberako bilakaera	23
5.3 Adinaren araberako emaitzak	24
5.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera	26
6. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA	28
6.1 Haurren presentziaren araberako euskararen erabilera	28
6.2. Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera	30
7. NEURKETA-EGUNEN ARABERAKO EMAITZAK	31
8. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA).....	32



SARRERA

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (eroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Datu eta joera horiek guztiak, nonbait nabarmentzekotan, herriko kaleetan besteak beste ematen den eguneroko erabileran nabarmentzen dira. Kale-erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Kale-erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen-lan bat aurrera eraman ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horietan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek erraztu egiten digu ondoren lehentasunak non dauden erabakitzea. Gainera, kale-erabileraren neurketa maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitu.



1.METODOLOGIA

1.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia

Idiazabalen egin dugun hizkuntza-erabileraren neurketaren oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik lau zapabost urtean behin errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, eta 2011n. Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hortik beherako batzuetan jasotzen dira datuak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan.

Kale-neurketaren metodologia behaketa zuzena da; neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, ezertxo ere galdetu gabe. Hala, hiztunek ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna saihesten da eta emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

Landa-lana

Landa-lana burutzerakoan neurtu beharreko kaleak aurrez identifikatzen dira ibilbide bat (edo gehiago) zehaztuz. Horretarako irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea da: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitzen dira, eta hauen hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtu ahal izatea izaten da; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

Elkarrizketa-hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa-hizkuntza dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.



Kale-erabileraren neurketa izanik, hiztun-talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kalean behatzen ditugun hiztun taldeek hizkuntza jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu hauetan, Euskal Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza-ohituren arabera, erabakita egoten da —inkontzienteki bada ere— zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Euskara ez dakitenean kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz edo frantsesez, alegia). Eta dakitenean artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza-ohiturak aldatu ere egiten direla baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldagaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza-ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

Fitxak

2014ko neurketa honetan erabilera datuak fitxa bakarrean jaso ditugu. Fitxa honen bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan dugu: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen adin-osaketa. Neurraldi guztietan fitxa berdina erabili da.

Ikus ondoren fitxa horien irudiak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HEERIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: _____
 NEURTZAILEAK: _____

SODIA BIZIETAN HIZTERRA
 1.943.592.556
 klustera@soziolinguitika.org

EUSKARA GAZTELARA FRANTSEZ BESTERIK	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (24-64 urte)	Adinekoak (65... urte)	Haurrak hitz egiten	
					BAI	EZ
01						
02						
03						
04						
05						
06						
07						
08						
09						
10						
11						
12						
13						
14						
15						
16						
17						
18						
19						
20						

Emakumezkoa Gizonzkoa

- 001 -

OHARRAK:

EUSKARA GAZTELARA FRANTSEZ BESTERIK	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (24-64 urte)	Adinekoak (65... urte)	Haurrak hitz egiten	
					BAI	EZ
21						
22						
23						
24						
25						
26						
27						
28						
29						
30						
31						
32						
33						
34						
35						
36						
37						
38						
39						
40						
41						
42						

Emakumezkoa Gizonzkoa



Aipatutako aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat atera dezakegu, esan bezala, hiztunen ezaugarriak jasotzeko aukera ematen digun fitxaren bidez.

“Idiazabaldarren” erabilera baino gehiago, Idiazabalgo kaleetakoa

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Idiazabalgo biztanleen (idiazabaldarren) erabilera denik. Horren ordez, zuzenagoa da esatea Idiazabalgo kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik.

Bestalde, kale-erabileraren neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia —euskararen kale-erabilera, alegia— neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

Adierazgarritasuna

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, haurren presentzia, eta sexua, besteak beste. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu; baita hiztuna hurrekin dagoen ala ez eta hiztunaren sexua ere.

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina (neurtutako pertsona kopurua) izango dugu, baina adin-talde bakoitzean sexuaren araberako azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.



Oharrak

Eta atal honi amaiera emateko, ikus ondoren datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Oharrak:

- Asokapen mende duen puntua da hasi. Iau lagun elkarrekin doazenean **normalean bat entzungo** dugu hizketan eta beste hirurak entzute izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu arda). Kasu horretan **suk fitza-orrian Iau lagun entzun ditugula** jarriko dugu.
- Neurketa irauten duen denboran **ahalik eta elkarriketa** gehien entzungo ditugu, eta ahalik eta fitza-orri gehien berriko ditugu.
- Neurraldia** hastean fitza-orri berrak hasiko dugu, eta fitxaren goialdean agertzen diren datuak berriko ditugu neurraldiari dagokion ibilbidea, eguna eta ordua adieraziz.
- Ibilbidean zehar persona bera **neurraldi eta elkarriketa berean** ez dugu behin baino gehiagotan neurruko. Alegia, persona bera jende berekinean eta hizkuntza berran entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. **Ahik, baldin partaideren bat adieritzen bada** (norbait etan edo norbait jain) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak aldatu ez arren), hori gertatzen ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.

- Elkarriketa aldebidunetan** (batek euskaraz hitz egiten eta besteak gaztelaz entzuten dutenak, edo alderantziz) bi aldir jasoko dugu elkarriketa, baina euskaraz eta bestea gaztelaz. Ondoren bi elkarriketak berriko ditugu gero batez. Ius sarrero fitza erduan 04 eta 05 elkarriketak (Adibidea: bi agure hitz egiten ari dira, baina euskaraz ari da eta besteak gaztelaz entzuten diel).
- Neurtzaileekin** hitz egiten dutenei ez zaie neurruko.
- Dualakoa kasuak ez jaso**, hau da, erantzuneko hizkuntza zein den ziur ez dabilenean, jaso gabe utzi.
- Inoiz ez dugu galdetarik egingo, ez galdetu ezar**: ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baina inkesta bat egiten ari gurea beharketa bideko neurketa denez, erantzundakoa jaso behar dugu.
- Fitza-orriaren atzetik **oharrak** idazteko tartea dago, neurketa zehar gerta dabilkeen euskarrikoak, neurtzaileek jakintzak edota besteak informazio interesgarria jasotzeko.
- Azken oharra:** Euskaraz gutxi entzuten gogorra izan arren, **beti egia jarri**. Neurketa hau **euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua** da eta errealitate eguzki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Horretan, mesedez, zozortzak izan.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxek, lanategiak, garraioak, edonolako lokalk...), neurketa honetarik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

Neurketa **bikoteka** egingo da. Persona bakar batek ere egin lezake, baina egiakioa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteak zer apuratu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatu da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoak, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; siliduz, hizkuntza aldatuz, haserretuz,...

Ibilbidea

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat** izango du (koadernoaren atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). Ibilbidea henriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erodigeta-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egun behar du, bikoteak behar bezainbat aldir egun ahal izateko ibilbide hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatzeko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri bereietan jasoko dira (ikus beheko fitza-orria). **Elkarriketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta Iau datu hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza:** "Euskara" gaztelaz/frantsesa (Ipar EHS) eta "besteak" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskaraz edo gaztelaz ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besteak" zutabearen adierazko dugu. Eta guzta bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskaraz edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
- Adin taldeak:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urterik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileek egiteko izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrezkoa da.
- Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonetzkoa" den.
- Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarriketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aldiak diren "bar" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HURU ADBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarriketa**):
 - Euskaraz Iaukian "X" markatu.
 - Haurren zutabearen emakumezkoen Iaukian "1" adierazi eta gizonzkoen Iaukian beste "1" adierazi.
 - "Haurrak hitz egiten" zutabearen "bar" Iaukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelaz hitz egiten ari dira haien artean (Ipar Euskal Herrian frantsesez), 5 urteko **alaba** eta 16 urteko semea beraienkin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarriketa**):
 - Gaztelaz Iaukian "X" markatu.
 - Haurren zutabearen emakumezkoen Iaukian "1" adierazi; gaitzen zutabearen gizonzkoen Iaukian "1", eta helduen zutabearen emakumezkoen Iaukian "1" eta gizonzkoen Iaukian beste "1" markatu.
 - Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" Iaukian "X" seinatu.
- Bost garte, bi neska eta hiru mutil gaztelaz ari dira (**03 elkarriketa**):
 - Gaztelaz Iaukian "X" markatu.
 - Gaitzen zutabearen emakumezkoen Iaukian "2" eta gizonzkoen Iaukian "3" adierazi.
 - Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" Iaukian "X" markatu.



1.2 “Idiazabal, 2014” neurketaren fitxa teknikoa

Prozedurak

Aurreko puntuan, *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko metodologia azaldu dugu zehatz-mehatz. Hor adierazitako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2014ko *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko honako ibilbidea zehaztu dugu Idiazabalen:

Ibilbide nagusia: Ikastetxearen patioa, Kale Nagusia, Plaza, Txomenareneko parkea, Bikuña kalea, Pilarreneako parkea, Bikuña, Ikastetxea.

Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2014ko urriaren 14a eta 19a bitartean egin dugu, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldi eta ordutegietan:

Urriak 14, asteartea, 16:30-18:30	2 ordu
Urriak 15, asteazkena, (berria) 16:30-18:30	2 ordu
Urriak 16, osteguna, 11:00 – 13:00 eta 19:00 – 21:00	4 ordu
Urriak 17, ostirala, 09:00 – 11:00 eta 19:30 – 21:30	4 ordu
Urriak 18, larunbata, 09:00 – 11:00 eta 11:00 – 13:00	4 ordu
Urriak 19, igandean, 12:30 – 14:30 eta 18:00 – 20:00	4 ordu

Guztira: 20 ordu eta erdiko neurketa



Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

UNIBERTSOA: Idiazabalgo kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

LAGINA: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **1.102 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **3.167 herritarrek** osatu dute lagina.

AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): $\pm\%2,74$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan, eta $p=\%63,5$ izanik (behatutako elkarrizketen artean euskarazkoek osatu duten ehunekoa).




2. ERABILERA IDIAZABALEN, 2014. URTEAN: EMAITZA OROKORRA

2.1 Hamar elkarrizketetatik sei euskaraz Idiazabalen

Idiazabalgo kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik sei, %63,5 zehatzago esateko, euskaraz izan dira. Gainerakoak gaztelaniaz izan dira nagusiki (%35,0), eta badira beste hizkuntza batzuetan gertatzen direnak ere (%1,5), 2014ko urrian egindako neurketaren arabera).

1. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. IDIAZABAL, 2014 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

1. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. IDIAZABAL, 2014 (%)

	Kop.	(%)
Euskaraz	2.010	63,5
Gaztelaniaz	1.108	35,0
Beste hizkuntzetan	49	1,5
GUZTIRA	3.167	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

Horixe da 2014ko udazkenean Idiazabalgo herrian egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin dugun (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe 1.102 elkarrizketa behatu ditugula Idiazabalen, eta 3.167 lagun izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 2.206 biztanle dituen herri batentzat¹. Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen %63,5ko datu

¹ Iturria: INE, udal-errolda 2011 (urtarrilak 1).




horri \pm %2,74 akats-tartea dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan². Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

2.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila

Ehuneko 63,5koa da, hortaz, euskararen erabilera³ Idiazabalen. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

Idiazabaldarren hizkuntza-gaitasuna

2 GRAFIKOA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. IDIAZABAL, 2011 (%)



Iturria: EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika*, 2011

EUSTATEk 2011. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren* arabera, biztanleriaren %82,8 euskalduna zen Idiazabalen. Beste zati batek (%8,7), euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan behintzat, eta gainerako

² Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako Soziolinguistika Klusterrak berariaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.org/eu/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

³ Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearen, ordea, “erabilera” terminoa erabiliko dugu. Izan ohar hau kontuan txosten osorako.



%8,5ak erdaldunak ziren⁴, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Idiazabalgo herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak.

2. Taula. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. IDIAZABAL, 2011 (%)

	Kop.	(%)
Euskaldunak	1.828	82,8
Ia euskaldunak	193	8,7
Erdaldunak	188	8,5
GUZTIAK	2.206	100,0

Iturria: EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011*

Espero daitekeen euskararen erabilera

Zer-nolako harremana dago ezagutzaren eta erabileraren artean? Gure kasuan: Idiazabalen neurtutako erabilera (%63,5 euskaraz) zer da, handia edo txikia da, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tarte hartuta? (esan bezala, %82,8 ziren euskaldunak 2011n).

Galdera horri erantzuten laguntzeko, bere garaian J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* eredu matematiko bat garatu zuen⁵. Eredue horretan, gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri “espero daitekeen erabilera” (edo “erabilera isotropikoa”) esaten zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Eta honako formularen bidez kalkulatu da:

⁴ Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderi (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

⁵ Gaiari sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegik, 2001, *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 2002, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 54-68 orr.



$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera maila
 m_B = euskararekiko leialtasuna
 e_x = elebidunen proportzioa
 w_2 = bikoteen pisua
 w_3 = hirukoteen pisua
 w_4 = laukoteen pisua

Aplika dezagun formula hori Idiazabalgo errealitatera.

$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,828^2 + 0,22 \cdot 0,828^3 + 0,18 \cdot 0,828^4) = 0,621 = \%62,1$$


Kalkuluak eginda, hortaz, Idiazabalen %62,1ekoa da baldintza horietan “espero daitekeen erabilera”. Hortaz, Idiazabalgo biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %62,1ekoa da espero daitekeen euskararen erabilera.



2.3 Euskararen erabilera Idiazabalen, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu ditzagun grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

3.GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA. IDIAZABAL, 2014 (%)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014*; EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011*.

Hirugarren grafikoan eta 3. taulan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera apalagoa da Idiazabalen, ezagutza baino. Zehazki, elebidunen kopuruaren (%82,2) azpitik gelditzen da euskararen erabilera (%63,5). Lehen begiratu batean eman dezake euskara gutxi erabiltzen dela Idiazabalen, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruarekin alderatuta, betiere. Baina erabileraren eta ezagutzaren portzentajeak zuzenean alderatzen diren ondorioak, sarri, okerrak izaten dira, ia ezinezkoa baita erabilera- eta ezagutza-datuak bat etortzea.

3.TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA. IDIAZABAL, 2014 (%)

	(%)	Oinarria (kasu kopurua):	
Hizkuntza-gaitasuna 2011 (euskaldunen %a)	82,2	Hiztunak:	2.206
Erabilera erreala 2014	63,5	Behatutako solaskideak:	3.167
Espero daitekeen erabilera 2014 (kalkulua)	62,1	Hiztunak:	2.206

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014*; EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011*.



Kontuan izan behar dugu ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Eta, jakina, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin beti hitz egingo dute gaztelaniaz; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean ere euskara besterik ez erabiltzea. Oro har, normala da bi portzentaje horien artean aldea agertzea, eta Idiazabal ez da salbuespena.

Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori %62,1koa da Idiazabalen. Horren argitara, esan daiteke Idiazabalen euskararen erabilera errealak (%63,5) espero daitekeenaren oso parekoa dela.

Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu inoiz harremanik izaten). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa izaten eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.

Horiek horrela, espero daitekeen kopurua eta neurtutako erabilera hain parekoa izanda, eta kontuan hartuta kalean neurtutako erabilerak sarriago izaten direla harreman-sareetakoak ausazkoak baino, esan dezakegu, adierazgarria da euskaldunak euren artean elkartzen direnean, aukera dutena baino gutxiagotan hitz egitea euskaraz.




3. ERABILERAREN BILAKAERA IDIAZABALEN (2002-2014)

3.1 Euskararen erabilerak ia sei puntu behera egin du Idiazabalen azken 12 urteotan

2002. urtean egin zen Idiazabalen lehen aldiz herriko kaleetako euskararen erabileraren neurketa, eta 2014an egindakoaren emaitzak ordukoekin erkatzeko moduan daude. Bi neurketa horiek datu-bilketarako diseinu nahiko homogenea eta oinarri estatistiko sendoa dute, horregatik, alderaketak taxuz egiteko modua ematen digute.

Neurketa horietako guztietako emaitza nagusiak ondorengo taula eta grafikotan ikus daitezke. Horrela, esan daiteke lehen neurketa egin zenetik, 2002. urtean, gaur artean euskararen kale-erabilerak behera egin duela ia sei puntutan (2002ko %69,4tik 2014ko %63,5era).

4. GRAFIKOA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. IDIAZABAL, 2002-2014. EUSKARAZ (%)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak*, 2002 eta 2014.

4.TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. IDIAZABAL, 2002-2014. EUSKARAZ (%)

	Euskaraz (%)
2002	69,4
2014	63,5

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak*, 2002 eta 2014.




3.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera

Euskararen erabilera ulertzeko Idiazabalen interesgarria da aztertzea herritarren hizkuntza-gaitasunean izandako bilakaera. Ondorengo grafiko eta taulatan aurkezten ditugu herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, hasi 2001. urtetik eta 2011. urtea bitartekoak; izan ere, data horietakoak dira -2006koak tartean daudelarik- eskura ditugun hizkuntza-gaitasunaren inguruko datuak, EUSTATEk emanikoak, hain zuzen.

5. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. IDIAZABAL, 2001-2011



Iturria: EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak*.

Datuak irakurri aurretik, esan behar da seriea ez dela guztiz homogeneoa. Izan ere, 2006ko datuak eskuratzeko jarraitu zen metodologian aldaketa handiak gertatu ziren ordura arteko datu-bilketekin alderatuta. Aurrekoetan ez bezala, 2006koan informazioa biltzeko prozedura zuzenak askoz gutxiago erabili zituzten, eta nagusiki zeharkako iturriez baliatuz, kalkuluetan oinarritutako sistema baten bidez sortu ziren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak. Horregatik, gure ustez, 2006ko datuak ezin dira zuzenean alderatu 2001ekoekin. Hala eta guztiz, joera orokorrari antzemateko baliagarriak zaizkigu datu horiek.

Datuon irakurketaren arabera idiazabaldarren hizkuntza-gaitasunak behera egin du 5 puntutan 2001-2011 tartean, hau da, euskaldunak %87,9 izatetik %82,8ra igaro dira epe horretan.

Erdaldun elebakarren kopurua, aldi berean, %5,9tik %8,5era igo da 2001-2011 epealdian (bi puntu eta erdi); ia euskaldunen taldearen portzentajea ere igo da beste bi puntu eta erdi (%6,2tik %8,7ra igarota). Laburtuz: 2001-2011 urte-tartean euskaldunen ehunekoak bost



puntuako jaitsiera izan du Idiazabalen, eta jaitsiera hori ia-euskaldun eta erdaldunen arteko igoeran -erdiz erdi- islatu da.

5.TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. IDIAZABAL, 2001-2011 (%)


	2001 (kop.)	2006 (kop.)	2011 (kop.)
Euskaldunak	7.786	1.696	1.827
la euskaldunak	126	219	191
Erdaldunak	120	148	188
GUZTIAK	2.032	2.063	2.206
	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	87,9	82,2	82,8
la euskaldunak	6,2	10,6	8,7
Erdaldunak	5,9	7,2	8,5
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

3.3 Hizkuntza-gaitasunaren eta euskararen erabilera alderatua

Aurkeztu ditugu Idiazabalen euskararen erabilera eta ezagutza nola aldatu diren adierazten duten datuak. Orain aurkezten dugun grafikoan, bi datu-serie horiek hartu, eta elkarren ondoan jarri ditugu.

6. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN eta KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2001-2014. EUSKARAZ (%)



Iturriak: Gaitasunarentzat: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak. Erabileraentzat, Soziolinguistika Klusterra; Idiazabalgo hizkuntzen kale-erabilera neurketak 2002 eta 2014.



6.TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN eta KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2001-2014. EUSKARAZ (%)

	2001	2002	2006	2011	2014
Erabilera		69,4			63,5
Gaitasuna	87,9		82,2	82,8	

Iturriak: Gaitasunarentzat: EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak*. Erabileraarentzat, Soziolinguistika Klusterra; *Idiazabalgo hizkuntzen kale-erabilera neurketak* 2002 eta 2014.

6.grafikoak eta 6. Taulak erakusten duten jaitziera gertatu da euskara-gaitasunean eta euskararen erabileran 2001 eta 2011 urte bitartean 5 puntu ingurukoa gaitasunari dagokionean eta 2002tik 2014. urtea erabilerari dagokionean 6 puntu ingurukoa. Beraz, pentsa daiteke, bi gertakari horiek, neurri batean behintzat, lotuak egon daitezkeela, hau da, beste arrazoi batzuk egon daitezkeen arren, esan daiteke Idiazabalgo biztanleen euskararen gaitasun-ehunekoak galtzeak euskararen kaleko erabileran eragina izan dezakeela.




4. EUSKAL HERRIKO, EAEKO ETA HERRIALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA

4.1 Euskal Herriko, EAEko eta Gipuzkoako datuekiko alderaketa

Ondorengo grafikoan, 2011n eginiko *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak* emandako hainbat datu alderatuko ditugu Idiazabalgo neurketan jasotakoekin. Zazpigarren grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, lurralde zabalenetik hartuta (Euskal Herri mailan), esparru guztietan, Idiazabalgo euskararen erabilera tarte handiarekin da altuagoa: Euskal Herriko erabilera %13,3, Euskal Autonomi Elkartekoa %16,1 eta Gipuzkoakoa %32,7 izanik, Idiazabalgoa, erraz gailentzen zaie, %63,5a baita.

7.GRAFIKOA: EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO ETA IDIAZABALGO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2014. EUSKARAZ (%)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra; *Idiazabalgo hizkuntzen kale-erabilera 2014 eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa 2011.*

7.TAULA: EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO, GOIERRIKO ETA IDIAZABALGO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2014. EUSKARAZ (%)

	Euskararen kale-erabilera 2011/2014
Euskal Herria	13,3
EAE	16,1
Gipuzkoa	32,7
Idiazabal	63,5


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra; *Idiazabalgo hizkuntzen kale-erabilera 2014 eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa 2011.*



4.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, EAEko, Gipuzkoako eta Idiazabalgo datuen arteko alderaketa.

Orain arte eskainitako datuak apur bat testuinguratzeko, kontuan har ditzagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera”. Datu horiek honako grafiko honetan ikus daitezke.

8.GRAFIKOA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO ETA IDIAZABALGO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2011-2014 (%)



Iturria: Euskal Herriko gaitasunerako Eusko Jaurlaritza: *V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011*; EAE, Gipuzkoa eta Idiazabalgo gaitasunetarako EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011*. Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta Idiazabalgo kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen-erabilera neurketak, 2011*; Idiazabalgo kale-erabileraren daturako, *Kale-neurketa 2014*. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

8.TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO ETA IDIAZABALGO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2011-2014 (%)

	Hizkuntza-gaitasuna	Erabilera erreal	Espero daitekeen erabilera
Euskal Herria	27,0	13,3	5,1
EAE	37,2	16,1	9,9
Gipuzkoa	53,2	32,7	21,5
Idiazabal	82,8	63,5	62,1

Iturria: Euskal Herriko gaitasunerako Eusko Jaurlaritza: *V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011*; EAE, Gipuzkoa eta Idiazabalgo gaitasunetarako EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011*. Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta Idiazabalgo kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen-erabilera neurketak, 2011*; Idiazabalgo kale-erabileraren daturako, *Kale-neurketa 2014*. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

Ikus daitekeenez, Idiazabalen euskaldun gehiago daude, nabarmen, erkatutako gainerako eremuetan baino. Hortaz, handiagoa da “espero daitekeen erabilera” eta handiagoa da, azkenik, erabilera erreal ere Euskal Herria, EAE eta Gipuzkoako datuekin alderatuta.




Interesgarria da ikustea, bestalde, erkatu ditugun eremu guztietan espero daitekeen datutik gora dagoela erabilera erreala; hala ere, tarte hori Idiazabalen aurreikusi daitekeena baino txikiagoa dela esan daiteke: Euskal Herri mailan zazpi puntutik gorakoa da aldea; EAEn, seitik gorakoa; Gipuzkoan 11 puntutik gorakoa, eta Idiazabalen puntu bakar batekoa.

4.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Ikusi dugu Idiazabalgo euskararen kaleko erabilera Gipuzkoako batez bestekoa baino altuagoa dela nabarmen. Aldera dezagun orain, Idiazabal dagoen eskualdeko hainbat herritako datuekin.

9.GRAFIKOA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA ESKUALDE BEREKO HAINBAT UDALERRIREKIKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2011-2014 (%)



Iturria: Gaitasunerako EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika*, 2011. Erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen-erabilera neurketak*: Beasain 2013, Gabiria 2013, Legazpi 2011, Ordizia 2013, Urretxu-Zumarraga 2013. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

9.TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA ESKUALDE BEREKO HAINBAT UDALERRIREKIKO ALDERAKETA. IDIAZABAL, 2011-2014 (%)

	Hizkuntza-gaitasuna	Erabilera erreala	Espero daitekeen erabilera
Beasain	55,7	35,7	23,7
Gabiria	88,0	80,8	72,0
Idiazabal	82,8	63,5	62,1
Legazpi	57,2	27,1	25,7
Ordizia	57,2	38,6	25,7
Urretxu-Zumarraga	50,2	23,4	19,0


Iturria: Gaitasunerako EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika*, 2011. Erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen-erabilera neurketak*: Beasain 2013, Gabiria 2013, Legazpi 2011, Ordizia 2013, Urretxu-Zumarraga 2013. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.



4.4 Bilakaeren alderaketa

Idiazabalen euskararen *kale-erabileraren neurketa* lehen aldiz 2002. urtean egin zenez, egin dezagun bi neurketekin osatutako bilakaeraren grafikoa, Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako datuak Idiazabalgokoekin alderatuz.

10. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, EAE, GIPUZKOA, ETA IDIAZABAL. 2002-2014 EUSKARAZ (%)



Iturriak: Idiazabalerako 2002. eta 2014ko *Idiazabalgo hizkuntzen kale-erabileraren neurketa*. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2001, (SEI), Soziolinguistika Klusterra: 2006 eta 2011.

10.TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. . EUSKAL HERRIA, EAE, GIPUZKOA, ETA IDIAZABAL. 2002-2014 EUSKARAZ (%)

	Euskal Herria	EAE	Gipuzkoa	Idiazabal
2001	13,3	15,9	29,5	
2002				69,4
2006	13,7	16,8	32,1	
2011	13,3	16,7	32,7	
2014				63,9

Iturriak: Idiazabalerako 2002. eta 2014ko *Idiazabalgo hizkuntzen kale-erabileraren neurketa*. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2001, (SEI), Soziolinguistika Klusterra: 2006 eta 2011.

Hamargarren grafiko eta taulak erakusten dute euskararen kale-erabileran 2001etik 2011ra doan denbora-tartean Euskal Herrian eta EAEn ez dela aldaketa esanguratsurik gertatu. Aldiz, Gipuzkoan, bi puntutik gorako igoera gertatu da (2001eko 29,5tik 2011ko %32,7ra). Idiazabalen, ordea, kontuan hartzeko beherakada gertatu da: urtez urteko datu-bilketarik ez dagoenez, ezinezkoa da alderaketa erabatekoa egitea, baina urte horiek (2001-2011) biltzen dituen neurtutako tartean (2002-2014) sei puntutik gorako jaitsiera kontuan hartzeko modukoa dela dirudi.




5. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK

5.1 Sexuaren araberako emaitzak

la bost puntuko aldea dago Idiazabalgo kaleetan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko euskararen erabileran, 2014an egindako neurketaren arabera: gizonezkoek gehiago erabiltzen dute euskara emakumezkoek baino (%66,4 eta %61,6, hurrenez hurren). Tarte hori handiegia ez bada ere, oro har, izan ohi denetik aldentzen da, izan ere, esate baterako EAEko adin-tarte guztietan emakumezkoek zertxobait gehiago hitz egiten dute (puntu bateko aldea) gizonezkoek baino. Esan bezala, gertakari hori adin-tarte guztietan gertatzen da adinekoen artean izan ezik; kasu honetan gizonezkoek gehiago hitz egiten duten emakumezkoek baino.

11. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

11. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)

	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	63,5	61,6	66,4
Gaztelaniaz	35,0	37,1	31,6
Beste hizkuntzetan	1,5	1,2	2,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	3.397	1.967	1.430


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*



5.2 Sexuaren araberako bilakaera

Esan dugu 2014ko datuetan kontuan hartzeko aldea dagoela gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeran. Atzera begiratuta, ordea, ikus daiteke 2002an egindako neurketan alde hori are nabarmenagoa zela, hau da, 2002. urtean gizon eta emakumeen erabileraren arteko tarte nabarmen handia zen (gizonezkoek %85) eta emakumezkoak (%67,1). Harrez gero, ordea, euskararen erabileran sexu bietako biztanleen artean beherakada izan bada ere, gizonezkoen kasuan nabarmen handiagoa izan da jaitsiera, ia 20 puntukoa baita (2002ko %85etik 2014ko %66,4ra). Ikus daiteke, beraz, denbora-tarte honetan (azken 12 urteotan) gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeretan hurbilketa nabarmena gertatu dela, alegia, bi kasuetan hizkuntza-erabileraren galera izan delarik, bietan antzeko erabileran geratu dira (gizonezkoek %66,4, emakumezkoek %61,6).

12. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2002-2014 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra: *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2002 eta 2014.

12. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2002-2014 (EUSKARAZ, %)

	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2002	67,1	85,0
2014	61,6	66,4


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra: *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2002 eta 2014.



5.3 Adinaren araberako emaitzak

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaera adinaren arabera aztertuz gero. Haurrak (2-14 urte) eta gazteak (15-24 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak: hurrek egindako elkarrizketen %79,4 izan dira euskaraz eta gazteek egindakoen %83,6, 2014ko neurketako datuen arabera. Helduek (25-64 urte) eta adinekoek (65 urtetik gorakoak), berriz, gutxiago erabiltzen dute euskara: helduen artean %50,2 entzun ditugu euskaraz eta adinekoen artean %60,0.

13. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

Populazioaren adin-tarte gazteenak euskara gehien erabiltzea bat dator, oro har, Euskal Herri osoan gaur egun antzematen denarekin. Nolanahi ere, bada ñabardura bat, izan ere, Euskal Herri mailan ohikoagoa izaten da hurrek gehiago hitz egitea euskaraz gazteek baino. Beraz, Idiazabalgo kasuan azpimarratzekoa da gazteen belaunaldikoak izatea gehien hitz egiten dutenak. Ildo honetan, esan beharrik ez dago, belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, banaketa hori (haurrak eta gazteak alde batetik, eta helduak eta adinekoak bestetik) etorkizunari begira euskararen erabileraren ikuspegitik gora joatearen seinale izan daitekeela, gazte eta hurrek erabilerari eusteko moduan badira behintzat.

Bestalde, bada nabarmentzeko beste datu bat ere, adinekoen banaketari loturiko erabileran. Izan ere, Euskal Herri mailako neurketetan, helduek, nagusiki, adinekoek baino gehiago erabiltzen dute euskara, hau da, hurrekera honakoa izan ohi da (erabilera handienetik txikienera): haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak. Idiazabalen, ordea, aipaturiko gazteak



eta haurren hurrenkeratik harago, adinekoek helduek baino gehiago erabiltzen duteneko datua azpimarragarria da.


13. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)

	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	63,5	79,4	83,6	50,2	60,0
Gaztelaniaz	35,0	18,5	16,4	48,5	39,2
Beste hizkuntzetan	1,5	2,2	0,0	1,4	0,8
GUZTIRA	207,2	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	3.167	1.197	61	1.391	518.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

Horrek guztiak, jakina, zerikusia du batzuen eta besteen hizkuntza-gaitasunarekin, belaunaldi berriak baitira euskaldunenak Euskal Herriko zonalde askotan, baita Idiazabalen bertan ere. Ondorengo taula eta grafiko hauetan ikus daitekeenez, adinari erreparatuta, badaude aldeak herritarren hizkuntza-gaitasunean.

14. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)



Iturria: EUSTAT. *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.*

EUSTATen datuen arabera; euskaldunak %82,2 dira Idiazabalgo adinekoen artean eta erabilera %60koa; helduen artean %80,8 helduen artean; erabilera, ordea, 30 puntu txikiagoa da (%50,2). Beraz, esan daiteke bi kasutan gaitasuna eta erabileraren arteko tarte handia izanik ere, adinekoak helduek baino hobekiago eusten diotela euskararen erabilerari.



Gazteen artean, berriz, hamarretik bederatzitik gora dira euskaldunak (%90,5) eta euren erabilera %83,6ko izan da. Haurren artean %88,7koa da gaitasuna eta erabilera %79,4koa izan da. Beraz, Idiazabalgo kasuan ikus daiteke belaunaldi gazteen artean (haur eta gazteak) leialtasun nabarmen handiagoa dutela helduen eta adinekoen artean baino.

14. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014

	GUZTIAK (kop.)	Haurrak (kop.)	Gazteak (kop.)	Helduak (kop.)	Adinekoak (kop.)
Euskaldunak	1.827	251	153	1.045	378
Ia euskaldunak	191	20	3	147	21
Erdaldunak	188	12	13	102	61
GUZTIAK	2.2503	283	169	1.294	460


	(%)	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaldunak	82,8	88,7	90,5	80,8	82,2
Ia euskaldunak	8,7	7,1	1,8	11,4	4,6
Erdaldunak	8,5	4,2	7,7	7,9	13,3
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

5.4 Adinaren arabeko erabileraren bilakaera

Adinaren arabeko hizkuntza-portaeraren bilakaerari erreparatuz, honako joera hauek antzeman dira adin-tarteei erreparatuz gero:

15. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2002-2014 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra: *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* 2002 eta 2014.

2002etik 2014 bitartean erabileraren beherakada gertatu da adin-talde guztietan, adinekoen taldean izan ezik. Jaitsiera hori haurren artean 6 puntukoa izan da (%85,8tik %79,4ra),



gazteen artean 4 puntukoa (%87,9tik %83,6ra) eta 16 puntukoa helduen artean (%66,7tik %50,2ra). Adinekoen artean, ordea ia sei puntuko igoera neurtu da (%55,4tik %60ra).


15. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2002-2014 (EUSKARAZ, %)

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2002	85,8	87,9	66,7	55,4
2014	79,4	83,6	50,2	60,0

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra: *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* 2002 eta 2014.

Aurrez egin bezala, erka daitezke adinaren arabeko erabileraren bilakaera epe horretako adinaren arabeko euskara-gaitasunaren datuekin. 16. grafikoak eta 16. taulak erakusten dutenez, adin-tarte guztietan gertatu da kontuan izateko moduko euskararen gaitasunaren beherakada.

16. GRAFIKOA: EUSKARAREN GAITASUNAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: EUSTAT. *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika*, 2006, 2011

16. TAULA: EUSKARAREN GAITASUNAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	90,1	97,7	86,2	84
2011	88,7	90,5	80,8	82,2

Iturria: EUSTAT. *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika*, 2006, 2011

Esan bezala, gaitasunean beherakada adin-tarte guztietan geratu da: haurren artean ia puntu eta erdikoa (%90,1etik %88,7ra), gazteen artean zazpitik gora puntu (%97,7tik %90,5era), helduen artean sei puntu eta erikoa (%86,2tik %80,8ra) eta ia bi puntuko adinekoen artean (%2,2koa).




6. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA

6.1 Haurren presentziaren araberako euskararen erabilera

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izanda? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindun) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

17. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

Datuak ikuspegi horretatik aztertuta, argi geratzen da zein den joera nagusia: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osakeraren arabera. Diferentzia handiarekin haurrak dira, eurek bakarrik daudenean, gehien hitz egiten dutenak (%88,2). Nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, nabarmen gutxiago erabiltzen dute euskara, haurrekin ari direnean baino; nagusien arteko kale-elkarrizketen artean, erdia baino gutxiagotan dira euskaraz (%43,9).

17. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)

	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian
Euskaraz	88,2	43,9	70,9
Gaztelaniaz	10,0	55,2	27,1
Beste hizkuntzetan	1,8	0,9	2,0
	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	1.942	7.101	5.859


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*



Haur eta helduek batera osatutako taldeetan, berriz, %70,9koa da euskaraz hitz egiten entzuten den kopurua. Ikus dezagun ordea zein den talde horietan (haur eta helduen arteko taldeetan) gertatzen den haur eta helduen hizkuntza-portaeretakoa aldea. Hau da, berdin jokatzeko dute haurrek eta helduek talde horietan hitz egiten dutenean?

Ondorengo 18. grafiko eta 18. taulan ikus daitekeenez, alde nabarmena dago batzuen eta besteen arteko hizkuntza-jokabideetan.

18. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. HIZKETAN ARI DENAREN ARABAERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

18. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)

	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Euskaraz	88,2	43,9	70,9	67,6	79,4
Gaztelaniaz	10,0	55,2	27,1	30,5	18,3
Beste hizkuntzetan	1,8	0,9	2,0	1,9	2,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	1.942	7.101	5.859	2.623	3.236

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*


Esan bezala, nabarmen gehiago entzuten da euskaraz hitz egiten haur eta helduen arteko taldeetan (%70,9) nagusiekin soilik osatutako taldeetan (%43,9) baino. Talde horietan ordea, haurrek hitz egiten dutenean gehiago hitz egiten dute euskaraz (%79,4) helduek hitz egiten dutenean baino (%67,9). Kasu honetan ordea, nabarmentzeko datua da gure iritziz, haurrek, eurek bakarrik daudenean gehiago hitz egiten dutela euskaraz (%88,2), helduekin taldeak osatuz daudenean baino.



6.2. Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera

Bilakaera aztertuz, esan dezakegu solas-taldearen osaerak euskararen erabileran eragiten dituen desberdintasun horiek ez direla berriak Idiazabalen, eta hamar urte lehenago ere joera bera ageri zela; hots, haurrek euskara gehiago erabiltzen zuten haurrekin soilik daudenean, eta nagusiek euskaraz hitz egiteko joera handiagoa zuten eta dute haurrekin daudenean, euren artean (haurrik gabe) daudenean baino. Ez dirudi, hortaz, fenomeno berri-berri baten aurrean gaudenik.

19. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2002-2014 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra: *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* 2002 eta 2014.

Bilakaera-datuei erreparatuz, esan dezakegu haurren arteko erabilerak behera egin duela 2002-2014 tartean (2002ko %96,3tik 2014ko %88,2ra). Nagusiek bakarrik daudenean euskararen erabilerak ere behera egin du epe horretan, 2002ko %47,5etik 2014ko %43,9ra. Aldiz, haurrak eta nagusiak osatzen duten taldeetan, aldiz, eta oso handia ez den arren, ia bi puntuko igoera gertatu da: 2002ko %69,1etik 2014ko %70,9ra.

19. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. IDIAZABAL, 2002-2014 (EUSKARAZ, %)

	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian
2002	96,3	47,5	69,1
2014	88,2	43,9	70,9


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra: *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* 2002 eta 2014.



7. NEURKETA-EGUNEN ARABERAKO EMAITZAK

Metodologia atalean azaldu bezala, hainbat neurralditan egin dugu 2014ko *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketan*. Ondorengo taula eta grafikoetan, neurraldiz neurraldi jasotako datuak aurkeztuko ditugu. Ikus daitekeen bezala, badaude aldeak neurraldien emaitzetan.

20. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, NEURRALDIEN ARABERA. IDIAZABAL, 2014 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*

20 TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, NEURRALDIEN ARABERA. IDIAZABAL, 2014

urriak 19 igandea 18:00-20:00	52,5
urriak 19 igandea 12:30-14:30	77,2
Urriak 18, larunbata, 09:00-1300	60,0
Urriak 17, ostirala 19:30-13:00	63,5
Urriak 17, ostirala 09:00-11:00	52,2
Urriak 16, osteguna, 19:00-21:00	58,8
Urriak 16, osteguna, 11:00-13:00	67,4
Urriak 15, asteazkena, 16:30-18:30	77,5
Urriak 14, asteartea, 16:30-18:30	62,2

Iturria: Soziolinguistika Klusterra *Idiazabalgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2014.*



8. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)

2014ko urrian, Idiazabalen egindako *Hizkuntzen kale-erabileraren neurketaren* emaitzen azterketa honetan egin dezagun atal honetan datu nagusien laburpena:

- Entzundako 10 elkarrizketetatik sei, **%63,5 euskaraz** izan dira; **gaztelaniaz %35,0**, eta **beste hizkuntza batzuetan %1,5**.
- Elebidunen kopuruaren (**%82,2**) azpitik gelditzen da euskararen erabilera (**%63,5**). **Espero daitekeena 62,1koa** da (balio isotropikoa), biak oso parekoak, beraz.
- Euskararen kale-erabilerak **behera egin du ia sei** puntu: 2002ko %69,4tik 2014ko %63,5era.
- **Hizkuntza-gaitasunak ere behera egin du 5 puntutan** 2001-2011 tartean: euskaldunak %87,9 izatetik %82,8ra igaro dira.
- Gizonezkoek (**%66,4**) gehiago erabiltzen dute euskara emakumezkoek (**%61,6**) baino.
- 2002. urtean gizonezkoek %85ko erabilera zuten eta emakumezkoak %67,1koa: sexu bietako biztanleen artean beherakada gertatu da: gizonezkoen kasuan nabarmen handiagoa (2002ko %85etik 2014ko %66,4ra). 2014an ia parekatu dira.
- Haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak: **haurrek %79,4, gazteek %83,6, helduek %50, adinekoen %60,0**.
- **Adin-talde guztietan, adinekoen taldean izan ezik beherakada gertatu da.** haurren artean 6 puntukoa izan da galera (%85,8tik %79,4ra), gazteen artean 4 puntukoa (%87,9tik %83,6ra) eta 16 puntukoa helduen artean (%66,7tik %50,2ra). Adinekoen artean, ordea ia sei puntuko igoera neurtu da (%55,4tik %60ra).
- **Haurrak** dira, eurak bakarrik daudenean, **gehien hitz egiten dutenak (%88,2). Nagusiek, euren artean (haurrik gabe)** ari direnean, nabarmen gutxiago erabiltzen dute euskara, (**%43,9**). Haur eta helduen taldeetan %70,9.
- Bilakaerari dagokionez: haurren arteko erabilerak behera egin du 2002ko %96,3tik 2014ko %88,2ra. Nagusiek bakarrik daudenen kasuetan ere behera egin du %47,5etik %43,9ra. Baina, haurrak eta nagusiak osatzen duten taldeetan, aldiz, ia bi puntuko igoera gertatu da: %69,1etik 2014ko %70,9ra.